

UDAZKENEKO I. ZAPI JANZTEA. AURKEZPENA

Udazkeneko I. Zapi Janztea bertso-afari berezi bati izena ematera dator. Berezia diogu, afalondoan, bertsolariek beraien saioa burututakoan, entzuleak gehien gustatu zaion bertsolaria aukeratuko duelako.

Lehia kutsurik ez diogu eman nahi saio berezi honi, baina bai esanahi berezia: saioa irabazten duen bertsolariari zapia jantziko zaio (eta ez txapela). Emakumeak txapelketetan gizonaen txapela janztera ohitu dira. Ez, ordea, gizonaen emakumeen jantzietara, Inauterietan eta barregarri azaltzeko ez bada. Bertso-afari honetan emakumearen ikurra den zapia goratu nahi dugu. Ohorea izango da bertsolariarentzat zapi hori janztea, izan gizon zein emakume. Eta historiako I. Zapi Janztearen lekuko izango gara.

Saioaren egitura: aurreneko zatian gaiak jarriko dira eta bigarren zatia libreko saioa izango da. Ohizko saioetan bezala, bertsolari bati bakarka kantatzea egokituko zaio, edo beste bati puntuak erantzutea. Hau da, afalosteko ohiko saioa izango da, "sariketa" egiturarik gabekoa.

Bertsolariak: Agin Laburu, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina eta Uxue Alberdi

Eguna: 2017ko urriak 20, ostirala

Lekua: Zaldibia, Zubiburu Elkarte

Bertsolariarentzat sari handiena plazak egitea dela ulertzen dugu, eta entzuleek aukeratutako bertsolariak horixe irabaziko du (ordainsariaz gain), hurrengo urteko plaza. Udazkeneko II. Zapi Janztean bera izango da berriz ere bertsoan, beste hiru bertsolarirekin batera. Hau da, laburbilduta, urtero antolatu nahi genukeen ekitaldiaren nondik norakoa.



Zapiak Bat Kultur Elkarte

IFZ: G75176990

Santa Fe 60F, 1. ezkerre, 20247 Zaldibia

zapiakbat@gmail.com